



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: || IX Urtea || 1927'ko Uztaila || 103 Zenbakia || :—:

Zortzigaren Agindua. Gezur ezko testigutza.

*Non falsum testimonium dices. (Matth-XX-18).
Gezur ezko jakileana eztezu egingo.*



ORTZIGAREN aginduz zaintzen du Jaungoikoak gizonaren izen ona. Ortarako debekatu du, jakile edo testigu gezur ezkoarena inor egitea.

Auxe da agindu onen kalteko gaiztakeririk aundiena. Baño beste asko gauzetan ere utsegiten da mandamendu edo agindu ontan.

Jakile gezur ezkoarena egitera daramaten bide eta agindu onen kalteko bost utsegiñez eta gezur ezko testigutza itzegingo dizut gaur; eta beste baterako utziko degu gezuraz itzegitea.

Susmoak.

Norbaitek alako gaiztakeria egin ote duen gogoratzeari *susmoa* esaten diogu, baldin zalantzan edo dudan gelditzen ba-gera, ez bai, ta ez ez.

Amari gogoratzen zaio bere alabaz, onaren itxura ote duen edo, baño siñetsi gabe; eta onen antzean beste edozeñeri.

Susmo auei leku ematea, ařiskutsu da; baño berez oraindik pekatu txikia dira, naiz gauza guziz gaiztoaren susmoa egin.

Bidegabeko siñestamena.

Bidegabeko siñestamena esaten zaio, lagunurkoak (projimoak) artarako biderik eman gabe, artaz gauza gaiztoa osotara siñesten danean.

Onela non-naitik lagun bat datořela ikusirik, lapuřeta aundia edo beste edozein gaiztakeri egitetik datořela edo, besteak artako ezeren biderik eman gabe, edo zerbait itxura balu ere, naiko bide eman gabe, ori siñestea; orixe litzeke bide gabeko siñestamena.

Siñestamen auek berez pekatu lařiak dira, gauza lařian alkar-ganako maitetasuna ta zuzentasuna austen dalako. Jesus'ek zion: «etzazutela aurpegiz (itxuraz) iñor gaizto egin, baizik zuzentasun bidez gaizto egizute» (Joan.VII-24). Esan nai du, ez efezegi iñor gaizto egin edo gaiztotzat artu. Beste bein zion beřiz: «ez iñor gaizto egin nai izan, etzaitezten gaizto egiñak izan. Besteak zer zuzenbidez begieztatu, begieztatuak izango zerate zuek ere.» (Matth. VII-1),

Geroztik arinkerian besteaz gaizki uste izatea ta ala osotara siñestea pekatu lařia litzeke.

Baño eztago pekatu lařirik gauza ontan onako lau beařezko auek gabe:

1.^a Lagunurkoaz uste izaten dan gauza gaiztoa, *osotara siñetsi* bear da.

2.^a Siñestamena ematen zaion *gaiztakeria ere lařia* izan bear litzeke artako.

3.^a *Eřezegi siñetsia, edo artarako* lagunak naiko bide eman gabe siñetsi bear luke gaiztakeria.

4.^a Siñestamen bidegabeko *oartua izan bear du*, au da, ori egiten duena oartu bear da, gauza lařia siñesten duela, ori siñesteko ez duela biderik asko, edo obeki begieztatu bear lukela.

Ziplaka edo lotsagařikerien esaka.

Zortzigafen aginduaren kaltezko beste pekatu bat da, norbaiteri ziplaka aritzea edo lotsagařikeriak aurpegira botatzea, esan oiekin izen ona itsuski beztutzen bazaio.

Berez au ere pekatu aundia da, ta zuzentasunaren kaltezkoa gañera.

Alde askotara egiten da pekatu au; batzuetan itzez, bestetan keñuz, maxi ta ista egiñez, besteren begietan pařagafi jařiz, baita zor zaion omena ukatuz ere.

Ontaz pekatu lafia egitekoz, oso bezgafia izan bear du alako zipla, maxi edo burla egiten zaionarentzat.

Apaiz edo Praġe batentzat, gezurtia dala esatea pekatu aundia izango da geienean; eta emakume salketari askok beren lagunei ain-



Karmen'go Ama-Birjiña.

bat zipla ta esan gaizto bezgariagoak esan eta ere, ez dute pekatu aundirik egiten, batzuetan eġaz esan oiek nola-nai ateratzen zaizkie-lako su ta gar jaġirik edo ezagura aundirik gabe; beste batzuetan ez e-saten duenak eta ez entzuten diotenak, esan ainbatekorik siġesten ez-dutelako edo alolako gizon edo emakumen artean diralako zipla oiek.

Marmari bidegabezkoak.

Marmari bidegabezkoa deitzen degu, lagunurkoaz bidegabez esatea bere izena beztutzen duen zerbaite, naiz egiazkoa izan.

Ta bidegabez esaten da, aren utsegiña ixkutuan ba-dago ta ego-tea obe ba-litz, eta egon bear ere ba-luke, ta ala ere norbaitek ager-tzen ba-du.

Gure izen ona gauza aundia ta begiragafia da ta beste ondasu-nak baño geiago ukitu (ikutu) etzaikigukena min eman gabe.

Eta gerentzat nai ez deguna, besterentzat ez degulakoz nai izan bear; lagunurkoaren utsegin ixilik dagoana, ixilik gordetzera bearturik gaude ta ez dezakegu alakorik nola-nai jakitera eman.

Baño marmari ori ez litzeke bidegabezkoa izango;

1.^a Askoren onak eskatzen ba-du azaltzea. Emagun efi batean irakasle edo maixutako edo nai ba-dezute sendalaritako artzera dijoa-zena gizon ordi edo edanari emana, edo lizun eta gaiztatzailea izatea; orduan guzien onez bear litzeke adierazi nolakoa dan; aren izen ona baño lenago da guzien ona-ta.

Berdin litzake etxe bateko nagusitako artzera dijoazena jokalaria edo alper ondatzalea ba-litz edo. Alakotan len da etxe bateko guzien ona baten izen ona baño, ta esan diteke ta esan bear ere bai, galde-tzen ba-da beintzat nolakoa ote dan.

2.^a Gaizkile beraren onez agertu diteke aŕen gaiztakeria. Gazta-keria egin duenaren aitari, edo zaintzaŕeai ixilka aŕen gaiztakeria ager-tzea zilegi da.

3.^a Azkenean gaiztakeria dakian aŕen onez ere esan diteke gaiz-takeria, edo adiskide bati, zer bide artu galdetzeko, edo adiskide ixil eta zintzoa denean, baita biotza lasatzeko ere.

Marmari gezufezkoak.


Marmaria egiten ba-da gezufezko gauzak esanez, eta gauza la-riak edo nola-nai kalte aundia lagunen bateri ekaŕi lezaioketenak esa-ten ba-dira, len esan degun marmaria bezalaxe bidegabezkoa da au ere. Biak dira pekatu aundia berez eta zuzentasunaren kaltezekoak ala ere.

Gezufetan besterik salatzea, batez ere bere nagusien aŕean edo, oraindik aristian esan degun marmari gezufezkoa baño ere pekatu aundiagoa da, ain gauza gaiztoa salatzeko ba-da.

Ontatik maŕlatxo bat gorago dago jakile edo testigu gezufezkoa-ren pekatua.

(Jaŕaituko dio)

Intza'r Damaso A. O. M. Cap.



Mixiolari Euskaldunak Kansu'rontz

(Jaraipena)



OTAZILA. 23, OSTEGUNA. Bazkaltzerako Pingliang'era eldu giñan. Emen arkitu genduen gure mixioko Aita Nagusia. Tsinchow'tik etofi zan, guri abegi egiteagatik, eta emendik ara guri bidean laguntzeagatik. Olentzaro eguna ta Egubeñi eguna Pingliang'en egin genituan, eta 26'gafen egunean beñiro Tsinchow'rontz ibiltzen asi giñan.

Oneraño gurekin batean etofitako mixiolari steyldafak, emendik aufera ez ziran geyago gurekin ibili. Ayek, Lanchow, Liangchow'rako bidea zuten, guk Tsinchow'rakoa. Gurdiak Pingliang'en utzi genituen guk, andik Tsinchow'rako bidetan gurdirik ezin ibili liteke-ta.

Pingliang'en, otorduetan, nortzuk eta nundafak biltzen giñan jakitea, atsegin izagoo zaizute.

Maikidetako bat frantzitafa genduan, Marteau jauna. Ikasbidez, Lanchow'ra zijoa. Onek bi lagun zituan; bata, Frantzia aldeko kataluniatafa, ta bestea rusitafa. Rusitar au, mutil gazte bat zan, eta besten *interpretea*. Germaneraz (alemanez), angleraz (inglesez) eta txineraz (txinoz) ederki itz egiten du. Oek iruak ez ziran misiolariak, ez apaizak. Mixiolari tartean, bat olandafa, beste bat Ipañ-amerikafa, bi euskaldunak, ta gañerakoak germani-afak giñan.

Pingliang'dik Tsinchow'ra nola eraman ginduten nai nuke esan, bañan ez dakit asmatuko ote detan.

Bi egur luze, lodi tartean, bakoitzari etxetxo bat egin ziguten, gañetik eta atzetik estalita; aufetik zeukan zuloa gu sartzeko ta ateratzeko.

Etxetxo ori bi mandok artzen zuten beren bizkañetan; mando baten

gañean atzeko bi egur puntak, ta aufeko bi egur puntak beste mando baten gañean; ta gu etxetxo bafuan etzanda, balantzaka, juaten giñan.

Etxe oyek luzeago ta lasaiagoak, ta bideak obegoxeak izan ba-ziran, ederki ibili gintezkean. Bañan etxetxo oyek oso motz eta estuak ziran, eta guk aldamenetara ezin igiturik, beti etzanda gora begira egon bear eta asko aspertzen giñan. Batzutan, gurditxo ortatik jetxita, aufena ezin ibili izaten giñan; anak kiskorkuta eukitzeagatik, ezurgiltzak bereziki asko gogortu ta minberatu egiten zitzaizkigulako.

Gabez lo egiteko bide guztian izan ditugun etxolarik onenak, Pingliang'dik Tsinchow'rako bidean izan ditugu. Txinar etheen telatu gañean tximeneak ere lendabizi Kansu'n ikusi ditugu.

Kansu'n, bein baño geyagotan mahometaren etxetan lo egiten gelditu izan gera. Oso maitaki artzen ginduten. Bein edo bein galdetu nuan ya kristauak al ziran, ain adiskidetasun aundia erakusten bai-zuten, esanez: «*Xen fu le lo*» (¿etofi zera, Aita?) Txina'n, emakumeak, oña oso txikia izaten dutela ba-dakizute; iru edo lau urteko aufak, emengo emakumeak añako oña ba-duke.

Maometar oyetako batek, gure lekaimeen (monjaen) oin aundia ikusita, pozturik esaten zigun, emakumeen oñak ofela azitzen utzi bear zirala; txiki-erazitzea ez zala on.

Egun oetako batean, gure *ostatura* eldu ondorean, arpegiak eta eskuak garbituta, jaboï gordetzeko kutxatxo bat agirian utzi genduan. Berealaxe ostu ziguten; bañan bai lekaime (monja) batek ikusi ere nor izan zan lapurtxo.

Ufengo egunean, gure Aita Nagusiak mandazayen buru zanari deitu ta esan zion:

—«Zuek, denok gizon onak zerate; ala ere zuetako batek olako lapurketa egin du. Ez diot berari esan nai izan, ez lotsatzeagatik. Zuri esaten dizut. Kutxatxo laxter agertzen ez ba-da, agertuko da nor dan lapurra».

Ori esatea bakafik naiko izan zan; berealaxe agertu zan jaboï-kutxatxo.

ILBELTZAREN LENENGO egunean eldu giñan Tsinchow'ra. *Wei ho* ibaya eguerdiko amabik aldean igaro genduan. Egun oetan Tsinchow'ra bildu ziran mixiolari guztiak (7 edo 8), gure zai emen arkitu genituan. Azte txeko (kolegioko) ikastunak, lekaimeak (monjak) beren neskatzu batzuekin eta sendakifia bere andrearekin ere an ziran.

An bertan, tea artzeko dagon etxetxo batean, tea eta *aguardiente*a eman ziguten, nai zutenak zigaño batzuk efe zituzten, apaizgai gazte batek «Ongi-etofi» itzak irakufi zizkigun, ta beñero, gu gure gurditan, mixiolariak beren zaldi ta mandotan abiatu giñan. *Wei ho* ibaitik Tsinchow'ra ordu bete bat baño geyagoko bidea dago. Mendi bat igo ta jetxi egin bear da.

Tsinchow'n, Gotzayak beso zabalik artu ginduan. Berari efaztunean muñ eginda, guretzako aspaldi gertuta zeuden gelataratu giñan. ¡Zein poza gure gela edera, oya, yarlekua edo alkia izateaz! Aspaldian ez genduan izan ez gelarik, ez oerik, ez yarlekurik.

Mixio ontan orain bost probintzitako mixiolariak gaude: Ipaf-Amerika'ko bi probintzitakoak (ex Provincia Calvariensi et Pensylvanica); Ipar-Tirolia'ko probintzikokoak, germaniak eta gu.

Kansu'ko puskarik aundiēna mixiolari steyldafak (Societatis Verbi Divini) daukate. Oyena da Sartaldeko puska. Ipař-aldean, Mingsia'n, mixiolari scheutafak (1) ere ba-dute puskatxo bat. Buruñurdun (kaputxino) germaniafak daukatena da Kansu'ko puskarik onena. Puska au, ipar aldera, 37'gafen małaraño (graduraño) ez da iristen, eta Sartaldean 104'gafeneraño ere ez. (2)

Emen geyena aditzen ditugunak, guda (gefa) gauzak eta lapurketa gauzak dira. Emen Tsinchow'n, ilbeltzean, mandarinak 12 lapur il omen ditu. Tsingshui'n ere mandarinak bost lapur il omen ditu, eta oyetako bat kristaua. Efi ortan bi mixiolari daude.

Gure sendakiña.

Lenago aitatu dizutet. Sendakin ori, urte bete dalarik etofia da. Ez du-te ekafi mixiolariak, irabazte edo sariren bat eskeñiaz. Berak ez du ezer irabazten. Misiolariak laguntzeagatik bakafik etofia da. Steyldar mixiolari bat, etena daukala-ta, sendakin omengana etofi da. Eranegun egin zion *operazioa*, eta ongi noski, eria oso ondo dago-ta. Beste sendakin katoliko bat ere, emen dagoanaren lagun eta adiskidea laster etortzekoa da. Geroztik emen bi sendakin katoliko izango ditugu.

P. GREGORIUS, O. M. Cap.

Miss. Ap.

Tsinchow, Kansu; Epaila, 6 - 1927.

(1) Congregation du Coeur Immaculé de Marie.

(2) J. - M. Planchet, Missionnaire Lazariste. «Les Missions de la Chine et du Japon.» 1927. Septième Année. Pékin, Imprimerie des Lazaristes. Bi urtero agertzen da, ta Txina'ko mixioetaz jakin diteken guzia idazti ortan dago.



Kansu'ko lekaime (monja) mixiolariak



Biotz Doneari

***** ◆ ◆ ◆ *****





Andante
P

Lu-di-a da-go e - pel, o - tza; e-rain za - yo -

mf.

zu su, Bi-o - tza, e - rain za - yo - zu su, Bi - o - tza.

mf *p*



ARALAR

(Napañuako «Euskeraren adiskideak» deritzaion bazkunari.)

Bizitz-bideko autsez t'odolez josirik datoř
olerkaria zugana:

ařtu, ba, pozez, biotz-negafeř, ail bustitako
bere muñ eta laztana.

Negafeř zaude... Biotz-muñean nabaitu dizut
oñazearen eztena,
ta ara, ba-natoř, zurekin negař egin-naiean
Euskal-Eřitik bafena.

Ail! zaude ixilik... Ba-dakit-eta zergatik negar
dagiten zure begiak:
gure mendien espak aditzen, umetandikan
ba-daki oleřkariak.

Ba-dakit nik noiz agur-dagitzun pozez urtuik
zuri Ernio altsuak,
ta noiz negafeř biok zaudeřten, laño beltz-pean
lotsaz sařtuta buruak.

Bai, zaude ixilik... Nik euskaldunei esango diet
zure naigabe zořotza,
t'orduan noski euskaldun onak adituko du
zure deadař mingotza.

Euskal-semeak... ¡Entzun gauf ařen, entzun ta aditu
ařetaz nere bertsuak...
Gure Aralar negafeř dago... ¡ta aingeru Migel
lotsaz bildurik egoak..!

Zenbat oroipen alai eta ilun piztu oi-diran
emen, biotz-bafenean...
Euskal-Eřiko Edesti dana bizirik dago
oraindik zure gañean.

Oraindik ere dirdits-dagite belar-gañean
Goñi'ren malko gartsuak;
oraindik ere entzun oi-dira guda-muřilen
iřintzi ta asnas-estuak...

Ta... ¿Nor ote-da eřitik-eři, basotik-baso
Aralar-mendi-burura,
bide osoan negar ta negar antxe datořen
atso agurřaři ura?

Alarguna lez beltzez jantzia, makil sendoa
bere esku dardaritsuan...
Doi-doeiz dabil... baña almen-gařa, sutegian lez,
pizturik dauka bafuan.

Bere ařfetik, otso antzeko Baso-jaun beltza
bide osoan alaka...
Bere alboan, eluř antzeko ega luzedun
Maitagařiak egaka.

Eregiña da.. ¡Bañan ez dauka koroı edeřik
bere buruan gaxoak..!
Ba-zeukan, baña.. Kendu diote, ta iñork bestek ez,

ai !bere seme gaiztoak...!

Oraindik ere bere semeok, beren eritik
bota nai dute gaxoa...
Ta aien igesi, bere jauregi danak utzita,
mendi-goietara dioa.

Auzpez Migel'en afean dago goruntz jasoaz
negafez bere begiak...
Geroztik daude, Migel naigabez, negafez beñiz
Euskal Eriko mendiak.

«Ama Euskera, ene kutuna, dio Migel'ek,
txukatu zure negafa...
Zoaz efira, t'euskaldun onak adituko du
gaufko nere deadafa.


Zoaz efira..., Jaunak biotzez maite zaitu-ta,
maite du-ta zure Eria:
befiro zoaz semeengana, ni izango naiz-ta
gauftik zure Zaindaria.

Aguf eta aguf Napafoa'ko anai maiteak:
zuentzat nere txaloak;
Aufera... ekin, anaiak batzen ta Ama onari
txukatzen negaf-malkoak.


Eritik eri anai guziok batu t'eraman
Euskeraren magalera.
Ez utzi Ama maitasun-bila aterik-ate,
eskale baten antzera.

Euskal-semeak... !Guziok batu, t'eutsi Euskera
gaxoa il baño lenago.
Jainkoak nai du..! Ta Aingeru Migel ezpatarekin
gure baztefean dago.

JAUREGI'TAR LUIS



Aralar-mendiko malkoak (Intza'r Lor. arg.)



Lege beri bat

Aur asko duten familiei Gobernuaren laguntza.

«Zeruko Argia'ren Zuzendari A'ri
IRUÑA'RA.

Jaun agurgaria: Ni entzunda nago, aur asko dituzten nekazariak ez dutela saririk, beste langileenizat dirala. Ezia al da?

Emen jakin nai luteken nekazariak badaude (arpidedu-nak ain zuzen) eta erantzutea mesede egidazu.

Aurez eskerak.

Zure mendeko

Juan Mugertza, apaiza


Artadi (Zumaia)
Guipuzkoa.

Erantzuera

1) Ume asko dituzten sendi edo familien alde sariak ezafiaz atera dan lege ori ondo begiratu ta aztertu bear da. Lege ofek beti esaten du «*obreros*» edo langileak; ta itz ori artzen badegu juan diran urtetan egin diran legeen araura, itz ofek esan nai du «besteentzako lan egiten duana, lan ofen ordean sari bat artuaz» ta era onetan nekazari guztiak ez dira sartzen lege ofen onuratan; nekazari batzuk bere luften ta gauzen jabeak dira ta oyek beretzako lan egiten dute. Beste nekazari batzuk, ta geyenak dira, efentan lufak darabilzkite ta oyek esan leike besteentzat, efenta ordaintzeko ta besteen lufak gorde ta zaitzeko lan egiten dutela; ta oyen saria da luften igali edo frutua, ez diruan izan afen. Nekazari oyek esan leike lege ofetan sartzen dirala.

2) Ori legearen itzari begiratuaz; ta gañera oartu bear det lengo legetan ta beste efi batzuetako legetan itz ofek ere eskuz lan egiten duten langile guztiak esan nai zitula. Gañera lege bat ta lege baten itzak ondo azaltzeko, batez ere ta geyena legearen mamiari ta gogoari begiratu bear zayo; ta orduan bai gure baseñitafak ta gure nekazariak sartzen dirala lege ofetan. Ta lege ofen mamia ori dala adirazteko, ikusi itzazute beste efitan era ofe-

tan egin diran legeak, ta nekazariak beste langileak baño onura ta laguntza geiago dute Agintarien aldetik; ta ori efi oyek nekazarien ez ainbeste bear izan afen, nekazaritza baño aberastasun obegoak ta geigoak dituztelako, baño Españan nekazaritza da aberastasunik onena ta aundiena ta nekazariai



Gaztelugatxe (Bizkaia)

(Golkoetxe'r N'ren arg.)

bear zaye Agintarien laguntzarik aundiena ere. Gobernu onek ori aditu bear du ta adituko du.

3) Azkenean au da zure galdeari erantzuna: a) Batez ere efentan lufak dabilzkiten nekazarien eskea, nik dakitanez, oraindik ez du ukatu, ondo eskatua ba-zegon. b) Ona da era ofetan daudenak eske ori poliki ta zurtasunez txukundua egitea; asko ta geigo obe, ori ikustean Gobernua lege

ori azaldu beafean arkituko da, nekazariai ere argi onura oyek zabalduaz. Afeta aundia izan bear da Eskaleak egin bear duan eske edo azalpena ondo ta zurtasunez txukundua egotea, bai ta ere Alkateak egin bear duan argibide-a ondo ta poliki jartzea; ortan dago guztia. Legea ta Reglamendua ondo ikasi ta oyetara jafi zuen eskeak ta batez ere Eskalearen eskea ta alkatearen argibidea; ta nekazaria izan afen ta onen eskubidea ez argi egon afen, iritxiko da onura ori; nik ezagutzen ditut batzuek.

Eskatzen dakienak irixten du.

Amaialde.

Pedro Mari Amerikanoa

II

(Azkena)

Pedro Marik etzuen uste inondik, Joxe Anton, bera sarean ařapatzera zetofenik. Iruditu zitzaion apaizgai gazte ura aren jardun edefa entzun naiez etofia bide zela ostatura; gogoramen onek goxoago kilikortzen zion oraindik biotza, ba-zekielako, berak entzun zuenaz, eliz-bafuti ontan apaizgaiak zofotz debekaturik daukatela ostatu ta kafe-etxetara joatea. Eta ala ere ari entzuteagatik antxe zegon gazte ura.

Bere joan-etofietako ikuskari aundien befia emanez aritu zan eta bazarudin Joxe Anton'ek gogo bereziz entzuten ziola. Bere bidean ikusi zituen gauza aundien befia uts-utsik eman zuen, onela entzulen jakin-naia biztutzeko. Bat-batean Joxe Anton'ek onako galde, maltzurkeri gabekoa zirudien au egin zion:

—Eta Arjentina'ko bizibidez zer irudi zaizu, Pedro jauna? Esaten dute an auferapen gaitzak egiten ari dirala.

Apaizgaiak «D. Pedro» deitzen zuela ta gai ofen politaz galdetzen zio-la ikusirik, igelaren antzean puztu zan Pedro Mari, paf-ifi mufitzaz esker ona erakutsi zion apaizgaiari ta beste lagunei begitu zien, pilotari, galduko zuela uste zanak, garai atera ondoren lagunei egin lezaiekenaren antzekoa.

—An auferapen aundiak egiten ari dirala uste izatean, egi aundi bat egiztatu besterik eztezu egin, erantzun zuen Pedro Marik. Nekazaritzak, ola-lanak eta salketak Arjentinan uste guziak gañeztu dituzte.

—Eta uste dezu, Eřepublika aundi aren lufeko irabazbideen ariora auferatzen duela ikasbideak eta erlijioak ere Arjentinan?, esan zuen Joxe Antonek. Baño inork asmo gaiztorik ez sumatzeko erarik xaloenean.

—Ikasbideak auferatzen dute, baño erlijioak ez, erantzun zuen Amerikanoak. An asko irakurtzen (leitzen) da. Ango egunariak oso aundiak dira. Egunero ikasteko gai egokiak darabilzkite ta irakurle ezin esan ala ba-dute. Baño erlijioa egunetik egunera ondatzen ari da an. An bakanak dira meza entzun eta Pazkoz egiten dutenak. An iruditzen zaigu ori gabe ezin gaitzekela aberastu. Eta Arjentinan dirudun aundi geienak sinesmen gabeak dira.

—Ofenbestean ote da, D. Pedro, esan zuen pafez-pafez Joxe Anton'ek.

—Siñetsi zaidazu. Urte askoz bizi izan naiz aien artean, eta Arjentina-ko dirudun aundiak siñesmen batere gabe dirala egiztu dezaket. Elizetan jende xea edo afunta besterik ezta ikusten. Eta ofengatik ez uste izan gizon prestuak ez diranik, erlijiorik ez duten oiek. Ezagutzen ditut ezeren utsik gabeko zaldunak, elizara iñoiz urbiltzen ez diran oien artean. An lasai dago kontzientzia, lasai erlijiozkoa izatea ere, eta baita edozein paper mota ere. Eta meza entzuten dutenak eta entzuten ez dutenak, alkafekin ederki bizi dira pakean. Efi argandik zer ikasi naiko ba-degu.

—Zure esanak atsegin aundia ematen didate, esan zuen Joxe Antonek. Baño joan beafa ba-dauket orain, eta beste egun batean itzegingo degu, zuri irudi ba-zaizu, ufutiko lufalde aietako befiak ongi dakizkitzula irudi du-ta.

Joxe Antonek ostatutik alde egin zuanean, garailearen para antzekoa egiten zien bere jardun lagunei, eta ezkefeko eskuz bere sudurpekoa biufituz, itz bakoitzari indar befia emanez esan zien:

—Apaizgai au befiz ere baldin ba-dator, nik apaiz jauntzia utziazi ta Amerikara bialtzen dutela.

Joxe Antonek bere etxera arteko bidea egin bidenabafean, bere baita-rako zion:

—Edo txoraturik nago, edo Amerikano au laxter guzien pařagafi jařiko det, Jaungoikoaren laguntzarekin.

Gertaerak adiraziko digu bietatik zeñek zion egia.

Legateko-Artzaia.


Īlabete onen amairugařen egunean meza bat emango da ZERUKO AR-
GIAREN irakurle ta ongĳen alde, Antonio Santuaren aldarean.



Alegi'ko kalea

(Alegi A'ren arg.)

IRIGOYENDAR XEPEINO JAUNA



Oyartzungo alkate xafa Irigoyendar Xepeino Jauna bizitza eta eriotza onaren bidez zerura joan da.

Bere lagun-on-maitiak bizitza guzian izan ditu Ama Birjiña eta bere senar Jose Deuna.

Ama Birjiña maite zuelako, larunbatetan barau egiten zuan osasunakin bizitu zan urtetan. Ezkondu zan egunetik, beñere utzi gabe, Xepeinon etxean Erosarioa ezezatu bear izan da. Jaunak daki noiz asi zen egunero Erosarioaren iru zatiak esaten, bakafik ezin zuanian, miñak ematen zion nekeagatik, emazteak edo seme-alabak lagundu ta.

Ama Birjiñari eman nai izan dizkio seme-alabak. Bost edo sei urte bete

ala, Arantzazura eramian ta zeruko Amaren mendean jafi izan ditu, berari seme-alabatxoak eskeñiaz. «Ama onaren zaipean jartzén ez altzaituztet, seme-alabatxo maitiak,» esaten zien pozez beterik.

Jaunak ordaindu dio semeak ongi azitzeko izan duen ardura; iru seme zafenak, bat Aita Kaputxino eta beste bi apaizetako autatuaz.

«Nere Aita zaitzalea» Jose Deunari deitzen zion: izan dituen bederatzi seme-alabei, Batayoko pontean, beste izenez gañera, Jose Santubaren izena jafi nai izan die.

Bere lan-gelan Jose Deunaren irudi polita olio-argi beti piztuarekin idukitzen zuen. Ilaren emeretzian il bear zuelako ustean bizi zen eta alaxen il da, Loreilaren 19.^{an}; ilero egiten zion Jose Deunari bederatziufena 19.^{an} bukatuaz eta... Ama Birjiñak eta bere senafak eriotzorduan lagundu diote.

Alkate xafak Oyartzungo efi^a 20 urtetan zuzen ongi zaitu du. Efi-etxe-ko jabetza Jesusen Biyotzari ematia berari zor zaio: eriko etxeak aufian daukan Jesusen Biyotzaren irudia ere bai. Urkale mendian Oyartzuafak daukaten Gurutzia, gauze argiarekin ikustia're bai.

Irugafen Ordenako senidea zen amalau urte bete zituanetik eta Prantzisko Santuaren Habituarekin il ondorean ere bere gorputza jantzitzia nai izan zuen. Goyan bego.

Bere andre alargunari ta seme-alaba guziai, batez ere Sangoza'ko Kaputxinoen Nagusi dan Jose Maria Aitari, eta Paulo ta Antonio apaizai gure atsekabea erakusten diegu.